

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2012/2013 ikasturtea

NI NEU NIRE LEHEN MUSIKA-TRESNA

Egilea: Itxaso Fernandez Muriel

Zuzendaria: Ana Urrutia Rasines

Leioan, 2013ko ekainaren 12 (a)n

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

A U R K I B I D E A

Sarrera eta justifikazioa.....	4
1. Esparru teorikoa.....	5
1.1. Soinuaren tratamendua proposamen metodologiko ezberdinetan.....	5
1.1.1. R. Murray Schafer-en proposamenak.....	5
1.1.2. John Paynter-en proposamenak.....	7
1.1.3. François Delalande-ren proposamenak.....	8
1.1.4. Beste proposamen batzuk.....	9
1.2. Soinuaren tratamendua Haur Hezkuntzan.....	10
1.3. Proiektuaren helburuak.....	12
2. Lanaren garapena.....	12
3. Emaitzak eta ondorioak.....	17
3.1. Bizipenaren ebaluazioa.....	17
3.2. Ekarpenak.....	18
3.3. Proiektzioa.....	19
4. Erreferentzia bibliografikoak.....	20

ERANSKINAK

1. eranskina. <i>Soinuak entzun eta desberdintzen</i> asmakizun jolaserako txartelak....	21
2. eranskina. Ebaluazioa.....	25
2.1. Ikasleek egindako ebaluazioa.....	25
2.2. Irakasleak egindako ebaluazioa.....	26

NI NEU NIRE LEHEN MUSIKA-TRESNA

Itxaso Fernandez Muriel

UPV/EHU

Laburpena

Nork bere burua musika-tresna bilakatzeko asmoarekin aurkezten dugu lan hau, izan ere, Haur Hezkuntzako gelan sormena, adierazpena zein entzumena garatzeko baliabide ezin hobea delakoan baikaude. Helburu horrekin, gorputza eta ahotsaren erabileran oinarritzen den irakaskuntza-proiektu bat sortzea izan da gure nahia; horretarako, hainbat proposamen metodologiko eta Curriculuma kontuan hartu ditugularik. Proiektua eskola batean burutu ahal izan ditugun jarduera ezberdinetan datza, eta ateratako emaitzek baieztatzen dute lanaren zentzua eta abiapuntua; hots, edozein errekurtso nahikoa dela musika sortzeko, eta honen bidez, gure barruko munduari irtenbidea emateko eta garatzen laguntzeko. Irakaslearen egitekoa hori posible bihurtuko duten aukera ezberdinak sortu eta eskaintzea da.

Hitz gakoak: soinuak, gorputza, ahotsa, Haur Hezkuntza.

Resumen

Presentamos este trabajo con la intención de que cada cual se transforme en instrumento musical, ya que creemos que es un recurso adecuado para el desarrollo de la creatividad, la escucha y la expresión en el aula de Educación Infantil. Con este objetivo, hemos creado un proyecto educativo basado en la utilización del cuerpo y la voz, para el cual hemos tenido en cuenta tanto diversas propuestas metodológicas como el propio Curriculum de esta etapa. Las distintas actividades desarrolladas han sido puestas en práctica en una escuela. Los resultados obtenidos confirman el sentido y punto de partida de nuestro trabajo: cualquier recurso es suficiente para hacer música y para desarrollar nuestra creatividad y expresividad. Crear y ofrecer diferentes recursos que lo hagan posible será una de las principales funciones del maestro o maestra de Infantil.

Palabras clave: sonidos, cuerpo, voz, Educación Infantil.

Abstract

We present this work with the objective of making everyone become themselves into a musical instrument, because we think it is a good resource to develop creativity, expression and audition in Child Schools. With this purpose, we have created an educational project based on the use of body and voice for which we have had into account the Curriculum as well as some methodological proposals. Our project has many different activities which we had the opportunity to prove in a school. The results we have obtained in these have pointed out the sense and the origin of our work: whatever resource is enough to play music and therefore, to put out the world we have inside. The teacher has the task to create and give different resources that make getting this objective possible.

Key words: sounds, body, voice, Child Education.

“La música no es corcheas y negras. No es puntos en el papel: es sonidos”

Paynter (1972, 7. orr.)

Sarrera eta justifikazioa

Azken urteetan musikak geletan errekurtsio pedagogiko gisa izan ditzakeen erabilpenen berri izan dugu, eta oraindik ikertzeke dagoen eremua izateagatik, gai honetan murgiltzea interesgarria eta erakargarria iruditu zaigu. Horrekin batera, musikako ikasketak izateak ere lan ildoaren hautapenean eragina izan du; izan ere, bai motibazioa eta baita ekarpenak egiteko aukerak handiagoak izatea ahalbidetu baitu.

Ikuspuntu hezitzaile batetik, ordea, helburu nagusia ez da musikako kontzeptuak irakastea, musika erabiltzea baizik. Izan ere, musikaren bidez gauzen eta beste pertsonen aurrean dugun jarrera landu daiteke, bai eta Haur Hezkuntzako helburuetako batzuk diren norberaren eta inguru hurbilaren ezagutza zein besteekiko harremana ere, horrela haurren garapen osoa eta orekatua lortzea ahalbidetuz. Esan bezala, hezkuntzan musikari ez zaio behar besteko etekinik ateratzen, are gutxiago musika bera ez den arlotik kanpo; horregatik, eta eskoletan adin txikiko haurrekin hasiera hasieratik lantzearen beharra ikusten dugulako proposamen hau planteatzen dugu, dagoen hutsunea betetzeko prozesuan ekarpena egin nahi dugulako.

Proiektu honen garapenerako aukeratutako gaia gorputza da, eta horren bidez soinuekiko sentsibilizazioa lantzea da helburua. Izan ere, gorputza gure lehenengo musika-tresna delakoan gaude eta, berari ematen zaion ohiko tratamenduaz gain, tresna ozena bilakatzea ere badagoela pentsatzen dugu.

Gizakiok gainera, jaiotzen garenetik egiten ditugu soinuak, bai komunikatzeko ahaleginetan, zein inguratzen gaituena ezagutzeko saiakeretan; baita gure gorputza ezagutzen gaudenean ere. Soinuekin esperimentatzea, beraz, gorputzarekin zein inguruko objektuekin egitea bezain naturala da, eta zalantzarik gabe haurrentzat erakargarria. Gure eginkizun nagusia, hortaz, nahi edo motibazio hori ez mugatzean datza, bai eta horretarako inguru eta jarduera egokiak proposatzean ere. Azken hau kontuan izanik, lan honetan proposatutako jarduerak jolas izaera mantentzen dute, eta Curriculuma errespetatzeaz gain, umeen interesetatik hurbil egoteko ahaleginetan gauzatu dira.

Hau horrela, lan honetan musikari eta pedagogo ezberdinek soinuaren tratamenduari buruz duten iritzia eta beraiek egindako ekarpenak aurkituko ditugu, batetik. Horrekin batera, eta proposamen hau eskoletan praktikan jartzeko helburua duela kontuan izanda, alde batera uztea ezinezkoa dela jakinik, Haur Hezkuntzako Curriculumean soinuari zer nolako tratamendua egiten zaion aztertzea ezinbestekoa iruditu zaigu. Bi eremu hauetan (aurrekariak eta curriculuma) esaten dena aintzat hartuta, gorputza musika-tresna gisa erabiliz soinuen sentsibilizazioa sustatzeko zenbait jardueraz osatutako proposamena ere topatuko dugu horri hauetan; bai eta eskola batean gauzatu ostean ateratako emaitz eta ondorioak ere.

1. Esparru teorikoa

1.1. Soinuaren tratamendua proposamen metodologiko desberdinetan

Hezkuntza tradizionalen musika beste ikasketa eremutzat hartu izan da eta ikasketa planetan ezagutza eremu hori gehitu ahala, musikaren historia, konposagile famatuak eta musika lanik garrantzitsuenak ikasteko erabili izan da. Apurka-apurka ikasketa planak musika hezkuntzatzat ulertu zitekeenean eraldatuz joan ziren, kasu horretan solfeo eta musika-tresnen ikasketa nagusi zelarik. Azken urteetan, berriz, musikak bere berezko irakaskuntzaz gain, pedagogiaren eremuan aukera anitzak eskaintzen dituela ikusi ahal izan da. Horren adibide dira ondorengo musikari eta pedagogoen egindako ekarpen eta proposamenak.

1.1.1. R. Murray Schafer-en proposamenak

Murray Schafer (1933) XX. mendeko bigarren erdiko Canadá-ko konposagile eta pedagogo ospetsua da. Berak Musika Hezkuntzaren ikuspegi berritzailea garatu zuen eta ikasleei musika entzuten, aukeratzen eta sortzen irakasteko gogo handia adierazi zuen.

Jarduera aktibo eta motibagarrien bidez norbera entzuteko, norberaren alde pertsonala aurkitzeko eta pentsatzeko, norberaren ideiak defendatzeko eta autokritika positiboa egiteko beharra azpimarratzen du Schafer-ek (1965).

Soinuaren bilaketan, esperimentazioan, jolasean eta sorkuntzan oinarritutako pedagogia aktiboa erabiltzen du, jolas librearen eta helduaren eta ikaslearen arteko harreman

demokratikotik sortzen dena; bere esanetan, "ya no hay maestros. Sólo una comunidad de aprendices" (1975, 14. orr.) eta guztiek elkarrengandik ikasten dute.

Schafer-ek egindako lanetan islatutako ideiek musika hezkuntzari egindako ekarpena handia da, izan ere, musikaren inguruko kontzeptu tradizionalak berrikusi eta birplanteatu egiten ditu; lehenago egiten zenaren kontrara, ez da bera musika egin eta ikasleek soilik entzun eta kopiatu egiten dutenak, izan ere, bere ustez "confrontado con una información ya elaborada, el niño no puede inventar; sólo puede memorizar o, en casos extremos, rechazar y destruir" (1975, 52. orr.). Gainera berak ez du uste irakaslea protagonista izan behar denik; guztiz kontrakoa aldarrikatzen du: "el maestro es fundamentalmente un alumno, y en el momento en que deja de serlo la filosofía de la educación tiene problemas" (1975, 13. orr.). Hau kontuan izanik, ikasleak soinuekin libreki esperimantatzera bultzatzen ditu, ikasleekin musika egin egiten du. Eta gainera, hurrek sortutakoa balioesten du: "aún no he encontrado un niño que fuese incapaz de realizar una pieza musical original" (1975, 17. orr.). Horrez gain, ahotsarekin egindako soinuei ere garrantzia berezia ematen die, ez bakarrik abesteari, baizik eta hitz egitean egindakoari ere. Guk inguruan eragindako soinuak eta gu inguratzen gaituztenak entzutera eta aztertzerara bideratzen ditu horiekin sentsibilizatu daitezen eta kritikoak izan daitezen lortzeko. Normalean ikusten dugunaz ari bagara ere, entzumenak gauza asko ahalbidetzen dizkigu, izan ere, "la escucha nos lleva a los lugares donde no llega la mirada. Los oídos ven a través de las paredes y a la vuelta de la esquina" (1994, 48. orr.). Orokorrean esan daiteke ikasleengan curiositatea piztea dela Schafer-en helburu nagusietako bat; azken finean, "una clase debería ser una hora de mil descubrimientos" (1975, 14. orr.).

Aurrekoa horrela, bere ekarpenak ez du musika arloan soilik eragiten, baizik eta hezkuntzari orokorrean aplikatu dakioken zerbait da.

Soinuarekin duen harremana ahaztu barik, soinua, musika, zarata...jaiotzen garetik eta kontzertu areto batean sartuta egoteko beharrik izan gabe, egunero inguratzen gaituen zerbait dela argi dago, eta horregatik esan daiteke ez dela aparteko gaitasunak dituzten gutxi batzuen esku utzi behar, eta edozein proposamenek irudimenean, sormenean zein adierazpenean dituen onurak ikusita, ume guztiei txikitatik esperimantatzeko, jolasteko, frogatzeko, sortzeko aukera eman behar zaiela. Bestetik, eta Schafer-en metodologiari dagokionez egindako aldaketei begira, ikasleei erabakitzeke, parte hartzeko, haiek ekoizteke, iritziak emateke, eztabaidatzeko, eta hitz gutxitan esateke, orain arte izan

duen paperari buelta emateko aukera ematea guztiz beharrezkoa dela agerian geratzen da; ez bakarrik musika arloan, baizik eta gainontzeko eskola orduetan ere.

1.1.2. John Paynter-en proposamenak

John Paynter (1931-2010) Ingalaterra-ko pedagogo eta konposagile garaikide famatua izan zen, eta berak egindako lanek eskoletan musikaren garapenerako proposamen berriak eskaintzen dituzte, bai eta musikak Curriculum-ean duen tokiaren berrikuspenerako proposamenak ere. Bere ustez (1972), hau horrela izatearen arrazoia musikak umeen sentsibilitatea eta irudimena esnatzen duela da, horrekin batera sentimenduak hezten laguntzen duelarik.

Paynter-ek soinu gisa definitutako musika guztiontzat dela baieztatzen zuen, eta haur eta gaztetxoek neurrira dagoen musika eskoletara hurbiltzeko ahaleginean ibili zen etengabe. Horretarako, musika garaikidea proposatzen zuen, horrek bidea errazten dituzten tresnak eskaintzen dituelako; izan ere, sormena, irudimena eta material errezak baititu oinarrian.

Autore honek (1972) ahotsarekin egin ahal diren soinuei, gorputzarekin egin ditzakegunei eta entzumenari ematen die garrantzia; gure gorputzak oinarrizko musika-tresnak direla uste du, eta arnasketa eta ahots korden erabileraren bidez lortutakoez gain, txaloak eginez, oinekin kolpetxoak emanez...soinu mota ezberdinak egin ditzakegula aipatzen du. Ahotsarekin egindakoei, ahatik, ez die garrantzia kentzen eta "los sonidos que producen las palabras pueden ser una fuente de material musical tan valiosa como los sonidos producidos por, digamos, la trompeta o el piano" esaten du (1972, 23. orr.). Hala eta guztiz ere, batez ere sormena eta esperimentatzeko aukera izatea azpimarratzen ditu autore honek eta ezaugarri horietan oinarritutako metodo sortzailea "asmatu" zuen. Paynter en ustez, "la excitación y el sentido de la aventura son esenciales para el aprendizaje" (1972, 117. orr.).

Bere ekarpen eta ideiak Haur Hezkuntzan aplikagarriak dira; musika guztiontzat dela aintzat harturik, haur txikiek ere musikaz baliatu daitezkeela onartzen ari da Paynter, eta berak proposaturiko metodo sortzaileari esker egia izan daiteke; izan ere, haurrek irudimena, sormena eta esploratzeko zein esperimentatzeko gogoia soberan izaten dute, eta hezitzaileon esku dago gogo eta interes horri etekina ateratzea. Kontuan izan beharreko gauza garrantzitsuen artean umeen garapen maila dago, eta funtsezkoa da bai entzungai jartzen diegun musika, zein ekoizteko eskatzen dieguna, bai eta horretarako

eskuragarri dituzten instrumentu eta baliabideak ere, haietara egokituak izatea. Horrez gain, hezitzaileoi ikasteko erabili ditugun metodo tradizional eta aurreiritziak alde batera uztea komeni zaigu, ikasleek egiten duten lanari irekita egon gaitezen eta pentsamolde zein ideia berriei bidea moztu ez diezaiegun (1999)

1.1.3. François Delalande-ren proposamenak

F. Delalande (1941) konposagile eta pedagogo frantziarra egungo pedagogia musikalaren bultzatzaile nagusietako bat da, praktika sortzaileetara bideratutakoarena, alegia.

Honen eta gaur eguneko beste hainbat eta hainbat musika hezitzailearen aburuz, ez da posible edukiak prozesuaren gainetik, teoria praktikaren aurretik, eta jakintza teorikoa egitearen eta ekoiztearen gainetik kokatzen eta nabarmentzen jarraitzea; horrekin batera kantutegi eta dagoeneko eginda dauden musika lanak abestu eta interpretatzera mugatzen diren musika saioak ere baztertu nahi dituzte, eta inprobisazioa eta konposizioa bezalako prozedurak areagotuko dituzten proiektuak edo jarrerak bultzatu nahi dituzte.

Askotan esan da garrantzitsuena prozesua bera dela, baina gero, praktikan emaitzei eta aspektu teorikoei ematen zaie garrantzia eta balore gehien. Musikari dagokionez, notak, figurak eta abar irakasten ematen da denbora mordoa eta musika egiten oso gutxi. Aitzitik, haurrek jaiotzen direnetik denbora eta dedikazio handia eskeintzen diote soinu bilaketari, esperimentazioari eta ekoizpenari. Beraz, “pensar y enseñar la música en términos de parámetros es hacer de ella una construcción puramente formal y quitarle lo más precioso que tiene: esa correspondencia entre el gesto y la vida afectiva” (1995, 61. orr.).

Honekin lotuta, F. Delalande-k, beste pedagogo batzuek esan duten bezala, musika ez dela jaso beharreko zerbait, baizik eta egin egin behar dela: “la música ya no solo se <<consume>>, se hace” (1995, 4. orr.); sortu beharreko zerbait dela esan, eta musika umeen jolasa dela baieztatzen du. Umeei soinuak egiten dituzten objektuak interesatzen zaizkie, eta berezko soinurik ez duten horiekin haiek soinuak ateratzeko saiakeran ibiltzen dira hasiera hasieratik, jaio eta hilabete gutxi batzuk dituztenetik. Hortik aurrera, “hacer y escuchar permanecerán mucho tiempo indisociables” (1995, 81. orr.).

Soinu eta keinuen hasierako ikerketa hau jolas sensorio-motorearekin alderatu daiteke; gero, ateratako soinu horien eta errealitatearen artean nolabaiteko harreman bat sortuko

da, eta adierazpena eta esanahiarekin lotuz, jolas sinbolikora pasa gaitzke. Azkenik, musikaren arauak aztertzerakoan arau jolasekin paralelismoa egin daiteke

Hiru jarduera hauek umeetan espontaneoak dira, eta hortaz, musika hezkuntzaren ikuspegia alda daiteke autore honek egindako ekarpen honi esker; izan ere, uste izan denaren kontrara, ez da umea batere musikala den egoeratik ateratzen, baizik eta haiengan existitzen den, eta jolas iturria den ekintza ludikoa garatzen da, hots, ekintza musikala. Ez zaizkie haurrei teknika eta teoria ugari ematen, baizik eta haiek egiten duten arakatzetik eta jolasetik abiatuta musikarekiko interesa pizten saiatzen da, eta ume bakoitzaren irudimen eta sormenari garatzeko bidea egiten zaio.

Hau horrela, hezitzaileon eginkizuna umei berez egiten dutena egiten bultzatzea da; soinuak egiten dituzten objektuekiko interesa izaten, objektu horiek erabiltzen, modu horretan soinuekin esperimendatzen eta bilaketa edo arakatzeko prozesu hori luzatzen. Haurrak berez interesatzen dira gauza hauengatik, nahikoa da guk ez mugatzea.

1.1.4. Beste proposamen batzuk

Proposamen honetarako aukeratutako gaia gorputza izateagatik Judith Akoschky-k *Cotidiáfonos* izeneko liburuan eta Etta Kaner-ek *Ciencia Sonora* izenekoan aipatutako jolas, esperimendu eta beste hainbat proposamen ez dira hemen gauzatuko. Hala ere, kontuan hartzekoak direla azpimarratzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, soinuari ematen dioten tratamenduagatik, bai eta haurren parte hartze aktiboa bultzatzeagatik ere.

J. Akoschky-k (1988) soinuaren aberastasunaren eta haurren behar, interes eta aukeren artean dagoen lotura baieztatzen du. Bere esanetan, ezin da zalantzan jarri soinuek haurrengan eragiten duten harridura; umeek soinu bat entzuterakoan horrekiko arreta hareagotzen dute, material bera edota ezberdina erabiliz, imitatzen edo errepikatzen saiatuz. Soinu horien gauzapenerako egunerokotasunean erabiltzen ditugun objektuez baliatzea proposatzen du autore honek, kotidiafonoez, alegia. Izan ere, haien sorrerarako beharrezkoak diren material errazengatik, kotidiafonoak edonoren esku daude, egiteko errazak dira eta soinua ateratzeko egin beharreko ekintza motrizak sinpleak; ondorioz, haurrekin egin eta erabiltzeko ezin hobeak.

Etta Kaner-ek ere soinuarekin esperimendatzeko aukera ematen die haurrei jakin-mina pizten duten galderari umeek burutuko dituzten jolas eta esperimenduen bidez erantzunez.

1.2. Soinuaren tratamendua Haur Hezkuntzan

Proiektu hau gauzatzeko ezinbestekoa zaigu Haur Hezkuntzako Curriculumari erreparatzea, izan ere, honek zehaztuko baitu gure eginkizunaren mugak zeintzuk diren. Curriculumak kontuan izanda, beraz, esan dezakegu Haur Hezkuntzaren helburu nagusia haurren garapen osoa eta orekatua lortzea dela, eta aspektu horretan nabarmentzekoa da hizkuntzek, haien barnean musika-hizkuntzak, ikasleen garapen osorako duten garrantzia oso handia dela, zenbait gaitasunen oinarria izateaz gain, nor bere nortasuna finkatzeko eta emozioak zein sentimenduak adierazteko aukera ematen baitute.

Musika hizkuntzari dagokionez, arretaz entzutean, soinuak aztertu eta manipulatzeko, soinuekin esperimentatu eta jolastean, pertzepzioari, erritmoari, kantuari, musika-tresnak erabiltzeari, gorputz-mugimenduari eta sormenari lotutako gaitasunak lantzen dira. Proiektu honetan hau guztia garatzeko aukeratu dugun gaia edo tresna gorputza izan da; izan ere, gorputzak emozioak, mugimendua, jolas sensorio-motorea, gorputz perkusioa, soinuen esperimentazioa eta imitazioa, eta adierazpena lantzeko aukera ematen digu. Horrekin batera, Haur Hezkuntzako Curriculumean bereizten diren hiru esparru nagusiak jorratzeko aukera ere ematen digu; hots, *norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala, inguruaren ezagutza, eta hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena jorratzeko aukera.*

Azalpen edo sarrera honen ostean Curriculumean esplizituki agertzen diren gaitasun, helburu eta edukiak izendatzera igaroko gara, kasu guztietan gure gaia eta proposamenarekin lotura handiena dutenak aipatuz.

Horrela, *5. artikuluan* agertzen diren Haur Hezkuntzako gaitasunen artean “Ikasten eta pentsatzen ikastea”, “Komunikatzen ikastea”, eta “Elkarrekin bizitzen ikastea” dira proiektu honen bidez gehien garatuko diren gaitasunak.

Bestetik, *7.artikuluan* azaltzen diren helburuei dagokienez, gure gaia zein den kontuan izanik aipagarrienak hauexek dira:

- Bere gorputza ezagutzeko, gorputzak ematen dituen aukerak zein diren eta desberdintasunak errespetatzen ikas dezan.
- Horretarako gorputzaren zenbait funtzio ezagutzea eta adieraztea, ekintzarako eta adierazpenerako dituen aukerak eta mugak aurkitu beharko ditugu.
- Ohiko jardueretan, pixkanaka, autonomia handiagoa hartzeko, bere buruarekiko konfiantza eta ekimena gara ditzan.

Beharrak, sentimenduak, emozioak edo lehentasunak identifikatzea, horiek adierazteko, menderatzeko eta ingurukoei jakinarazteko gai izatea beharrezkoa izango da.

Edukien kasuan, *Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala* izena duen Curriculumeko lehenengo eremuaren barnean, bigarren zikloko 1.blokeari dagokionez, hau da, “gorputza eta norberaren irudia”ri dagokionez, honakoak dira landuko diren eduki nagusiak: Batetik, norberaren gorputza aztertzea eta ezagutzea. Gorputzaren ezaugarriak eta nolakotasunak identifikatzea, bai eta ingurukoekin alderatuz dituzten aldeak eta antzekotasunak ere. Bestetik, gorputza eta kanpoko errealitatea aztertzean zentzumenak erabiltzea, eta hautematen diren sentrazioak eta pertzepzioak identifikatzea. Azkenik, norberaren eta ingurukoaren sentimenduak, emozioak, bizipenak, lehentasunak eta interesak identifikatu eta adieraztea zein norberaren sentimenduak eta emozioak pixkanaka kontrolatzen ikastea.

Eremu berberaren barruan “jolasa eta mugimendua” izeneko bigarren blokeari dagokionez, berriz, ondorengo hauek dira eduki azpimarragarrienak: jolas-egoeretan eta eguneroko egoeretan, norberaren gorputzak eta ingurukoarenak dituzten mugimenduak eta mugak aztertzea eta aintzat hartzea, batetik. Bestetik, oinarrizko mugimenduetan pixkanaka kontrolatzen ikastea (martxa, lasterketa, jauziak, oreka...). Trebetasun berriak ikasteko ekimena eta norberaren hobekuntzan aurrera egiteko nahia. Azkenik, espazioaren, erritmoaren eta denboraren lehen nozioak eskuratzea errazten duten mugimenduak erabiltzea.

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena izeneko Curriculumaren hirugarren eremuaren barnean “arte hizkuntza” izena duen hirugarren blokean eduki nabarmenenak hauek dira: ahotsaren, norberaren gorputzaren, materialen, eguneroko objektuen eta musika-tresnen soinu aukerak aztertzea; soinu eta erritmo errezak ekoiztea bestelako ekoizpen batzuen akonpainamendua egiteko: testuak, irudiak...; Mugimenduaren eta soinuaren arteko, eta hitzaren eta soinuaren arteko koordinazioa, jolasak, abestiak, errimak eta ipuinak abiapuntu hartuta; eta soinuen zenbait ezaugarri bereizgarri eta oinarrizko kontraste entzumenaren bitartez bereiztea (zarata/isiltasuna, luzea/motza, gogorra/leuna, altua/baxua), besteak beste.

Azkenik, eremu berdinen barruan “gorputz hizkuntza” izena duen laugarren bloketik, dramatizazio-, imitazio- eta dantza-jardueretan nahiz gorputz-adierazpeneko bestelako jolas batzuetan parte hartzea; bai eta besteen adierazpen, errepresentazio eta dramatizazioekiko interesa eta errespetua izatea ere badira aipatzekoak. Bukatzeko, eta

kasu honetan irakasle taldearen eginkizunei erreparatuta, Curriculumean aipatzen den eta aspektu azpimarragarria den gelako giroari egin nahi diogu erreferentzia, izan ere, oso garrantzitsua da haurrak babestuta eta onartuak direla sentitzea, eta horretarako hezitzaileen ardura da konfiantzazko eta segurtasunezko giroa sortu eta eskaintzea.

1.3. Proiektuaren helburuak

Musikak tresna pedagogiko gisa azken urteetan izan duen balioa erakustea eta geletan erabiltzera bultzatzea da proiektu honek duen helburuetariko bat. Bestetik, Curriculuma kontuan hartuta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko "programazio" batetan soinua integratzea da proposamen honekin egin nahi izan dena. Gorputza ikuspegi berri batetik aztertu eta lantzea xedetzat hartuta, haurrei gorputzarekin egin ditzakegun soinuak aurkitzera eta aztertzeraz bultzatzea, horiekiko sentsibilizazioa handitzeko asmoz eta horien bidez entzumena, adierazpena eta sormena garatzeko.

Horrekin batera, jarduera ezberdinen bidez Haur Hezkuntzako oinarrizko helburu batzuk eskuratzea izan da gure asmoa; hala nola, soinuekin sentsibilizatzea, gorputzak eskaintzen dituen aukera ezberdinak ezagutzea eta haiekin esperimintatzea, komunikazio eta adierazpen gaitasunak garatzea, eguneroko jardueretan pixkanaka-pixkanaka autonomia garatzen joatea, inguruko pertsonetikiko harremana sustatzea, ikasleen psikomotrizitatea hobetzea erritmo, mugimendu eta keinuen hastapenean lagunduko duten jarduerari esker, eta ingurua behatu eta aztertzeraz bultzatzea.

2. Lanaren garapena

Haur Hezkuntzan, Curriculum-ean datorrenari jarraiki hiru eremu nagusi lantzen dira: norberaren ezagutza, batetik; ingurunearen ezagutza, bestetik; eta azkenik, komunikazioa eta adierazpena. Hauen barnean, berriz, zerikusia duten bestelako gai batzuk jorratzen dira.

Kasu honetan proiektu honen garapenerako aukeratutako gaia gorputza da, gai honek hiru bloke horietara hurbiltzeko aukera ematen baitu; izan ere, gorputzaren berri izatea norberaren existentziaz jabetzeko lehenengo urratsetariko bat da, eta ondorioz, ingurukoa ezagutzeko eta norberarengandik ezberdintzeko pausu garrantzitsua; baita ingurukoekin erlazionatzeko ere. Gainera komunikatzeko modua ere eskaintzen du

gorputzak, bai horren atal garrantzitsua den eztarria eta ahots kordak erabilita, zein gainontzeko atalek ahalbidetzen dizkiguten soinu eta mugimenduen bitartez.

Hau guztiagatik, gorputza lantzea ezinbestekoa da Haur Hezkuntzan. Lau urte dituztenerako hurrek dagoeneko badakite haiek pertsonak direla, gorputz bat dutela eta bestelako animaliangandik ezberdintzen dituzten ezaugarri batzuk dituztela. Hala ere, gorputz barnean sentitzen dituzten gauzei izena ematen ikasi behar dute, bai eta emozioei irteera egokia ematen ere. Horrez gain, gorputzarekin eta bertako atal ezberdinekin egin ditzaketen askotariko mugimendu eta soinuak ezezagunak dira haientzat, eta jolas sensorio-motoreari esker, apurka-apurka horiek espermentatzen doazen heinean, bestelako lanketa bat egiteko aukera aprobetxagarria da oso, honen bidez gainera, ume txikiek dituzten koordinazio zailtasunak ere hobetuko direlarik.

Gorputzetik abiatuta, hortaz, gorputz atalak, emozioak, mugimendua, jolas sensorio-motorea, gorputz perkusioa, soinuen espermentazioa eta imitazioa lantzeko beta aurkeztuko da, besteak beste, guzti honetarako tresna soinua izango delarik.

Proiektu honetan proposatzen diren jarduera guztiek, beraz, gai bera jorrazteko helburua izango dute, gorputza, alegia, eta 4 urteko umeentzat zuzenduak izango dira.

Jarraian hainbat saiotan bana daitezkeen, baina progresio bat jarraitzen duten jarduera batzuk proposatzen dira:

Saioa aurkezpen txiki batekin hasia proposatzen da, zeinetan bakoitzak bere burua aurkeztuko duen bere izena esanez. Soinua eta gorputzaren arteko harremana lantzen hasteko, bakoitzak bere izena esatearekin batera txaloak emango ditu, eta horrela, gorputza musika-tresna gisa erabiltzeko prozesuari hasiera emango diogu.

Behin hau eginda, soinuen jolasari ekingo zaio: *Zenbat soinu egin ditzaket?* Jarduera hau bi ataletan banatzen da: hasteko, hurrei beraien gorputzekin libreki espermentatzen utziko zaie, gorputzaren bidez egin ditzaketen soinuak topatu ditzaten. Esan behar da, gorputza esatean, ahotsa ere barnebiltzen dela, hau gorputzaren atala den ahoarekin egiten baita. Ondoren, guztiak korroan elkartuko gara eta komunean jarriko ditugu lortutako soinuak, komentatu eta sailkatzen saiatuz. Sailkapen honetan, batetik soinua lortzeko bideari erreparatuko diogu, hau da, zer egin dugun soinua lortzeko, zein gorputz atal erabili ditugun; baina bestetik, soinu hori nolakoa den ere komentatuko dugu: zorrotza, grabea, gogorra (f; "forte"), ahula (p; "piano") etab. Ariketa honen bidez, gorputz atal desberdinak ezagutzeaz gain umeen sormena bultzatzea da helburua, bai eta soinuarekin espermentatzea ere.

Ondoren, *soinuak entzun eta desberdintzen* izeneko asmakizun jolasa egingo da. Jarduera hau soinuak dagokien gorputzeko atalarekin elkartzean datza. Gelako haur guztiek bat izan ezik, begiak itxita izango dituzte eta lurrean eserita egongo dira isilik. Begiak zabalik dituenak, kutxa batetik txartel bat atera (1go eranskina) eta bertan irudikatuta agertuko den gorputz atalarekin soinu bat egingo du, horretarako aukera ezberdinak izanik: atal hori bakarrik erabili, beste atal batekin kolpatu ala objekturen baten kontra jo. Irudiak errepikatuko dira txarteletan zehar, baina umeak soinu berriak sortzen saiatu beharko dira. Gainontzeko umeek gorputzeko ze atalez ari den asmatu beharko dute; asmatzen duenak begiak zabalduko ditu eta prozesu bera errepikatuko da txartel guztiak amaitu arte. Jarduera honetan aurrekoan landutako sormena eta inprobisazioari, entzumena, isilik egoteko gaitasuna eta arreta mantentzekoa gehitu zaizkio.

Orain arte umeak izan dira soinu iturri bakarrak, eta oraingoan hurrek egingo dituzten soinuekin batera musika grabatua erabiltzera igaroko gara *ispiluaren jolasa* izeneko ariketa honetan. Jarduera hau Murray Schafer konposagile eta pedagogoaren *El rinoceronte en el aula* izeneko liburuaren 69.orrian agertzen den ariketa batetik ateratakoa da, eta bere garapenerako haurrak bikoteka gelatik sakabanatuta jartzea beharrezkoa da. Bikote bakoitzean bi paper bereiztuko dira: bietako bat umea izango da, eta bestea honen isla. Hortaz, bata egiten dituen mugimendu guztiak besteak ispilua izango balitz bezala kopiauko ditu; baina kasu honetan, ohiko jolas honi beste ezaugarri bat gehituko zaio: soinua. Hau da, mugimenduez gain, umeak egiten dituen soinuak ere imitatu beharko ditu ispiluaren papera duen haurrak. Musika lana behin entzunda rol aldaketa egingo da, ume guztiek bi jarrerak hartzeko aukera izan dezaten. Jolas honi esker hurrek imitazioa zein adierazpena landuko dute.

Jarduera honetarako musika lan ezberdinak erabili daitezke bilatzen diren mugimendu eta soinuen arabera, hortaz jarduera egin bitartean entzungai egongo den musika biziagoa, motelagoa, letrarekin zein instrumentala izan daiteke. Kasu honetan proposatutakoa musika instrumental garaikidea da; izan ere, honetan ez dago pulstu neurturik eta horrez gain, letrarik ez izatean umei mugimendu askeagoak egiteko aukera ematen zaie. Honen adibide J. Cage-ren "3.interludioa" izan daiteke. Hala ere, pulstu markatua duen beste musika lan bat jartzea ere egokia izan daiteke mugimendu eta soinuetan egondako aldaketak behatzeko. Horretarako B. Bartok- en "2 danzas rápidas" izeneko adibide ona izan daitekeela uste dugu.

Hurrengo jarduerak *Zuzendariari jarraitu* izena dauka, eta honek dioen bezala batek egindakoari besteek jarraitzean datza. Jarduera honetan hasieran irakaslea izango da gidaria, baina gero ikasleek hartuko dute bai gidari eta baita jarraitzailearen papera ere (txandakatuz joango dira guztiak gidari izan daitezzen). Gidariak perkusio txikiko musika-tresna bat joko du, beharrezkoa izanez gero irakaslearen laguntza izango duelarik, eta gainontzeko haurrak erritmoa jarraituz gelatik mugituko dira gidariak jotzeari utzi arte. Gidariak intentsitate eta abiadura aldaketak egin ditzake, eta hurrek aldaketa horiek adierazi edo islatu beharko dituzte, horretarako, ibilkera aldatuz (oin puntetan ibili suabe jotzen duenean, eta makurtuz, pisutsu bezala fuerte jotzean; arinago edo motelago etab.) edota haiek gorputza eta ahotsaz baliatuz egingo dituzten soinuak egokituz. Jarduera honekin entzumena zein adierazpena landuko dira, horretarako dagoeneko erabili ez diren perkusio txikiko musika-tresnak erabiliz.

Ikusi daitekeenez, elementu ezberdinak lantzen joan gara jardueraz jarduera, eta ondoren datorren honetan musika zuzenean abesteari ekingo diogu. *Pa-pa-ra-ba-pa-pi-ri-pon* abesti edo animazio jolasaren moldaketa da jarraian azalduko dena, eta hau abesti baten bidez gorputz osoa mugitzean datza. Benetakoan ez bezala, kasu honetan abestia ez da metagarria izango. Ikasle guztiak borobil bat eginez kokatuko dira zutik eta guztiak batera abesten eta era askean mugitzen hasiko dira *nik daukat tik tik tik (birritan) eta medikuak esan dit* esanez; jarraian pertsona bakar batek egin beharreko ekintza esango du (hasieran irakasleak eta gero hurrek haien artean txandakatuz): *eskuak txalotzeko*, adibidez. Orduan berriro ere talde osoa hasiko da abesten eta mugitzen; kasu honetan abestu zein mugitu guztiek batera egin behar dute, era berean musikarekin bat eginez: *txalotzeko behin, pa!* (eta guztiek txalotuko dute), *txalotzeko bitan, pa! pa!* (eta guztiek birritan txalotu behar dute), *txalotzeko lautan, pa! pa! pa! pa!* (lautan txalotu behar da *pa* bakoitzarekin behin). Gero guztiek *pa-pa-ra-ba-pa-pi-ri-pon! pa-pa-ra-ba-pa-pi-ri-pon! uh! yeah! pa-pa-ra-ba-pa-pi-ri-pon! pa-pa-ra-ba-pa-pi-ri-pon! uh! yeah!* abestu eta berriro hasiko litzateke hasieratik, baina beste atal edo ekintza batekin. *Pa-pa-ra-ba-pa-pi-ri-pon* esaten den bitartean txalotzen jarraitu behar da, *uh* esatean besoa tolestuta dagoela eskua stop esateko bezala erakusten da, eta *yeah* esatean, berriz, esku berdina aurrerantz eramaten da besoa olatuaren mugimendua egin ahala luzatuz. Lurra zapaltzea, musu ematea, salto egitea, hankak kolpatzea, eskuak igurtzea...izan daitezke erabili daitezken beste keinu ozen batzuen adibide baliagarriak. Jarduera hau abesti bat den neurrian, intonazioa lantzeko baliagarria izango da, baina

horretaz gain, ahotsaren bestelako erabilerak antzemateko ere balioko du, izan ere deklamazioa erabiltzen baita bertan.

Aurreko jardueretan adierazpena landu bada ere, hurrengo hau bereziki helburu horrekin planteatzen da, izan ere, gorputzaren barneko aldera egingo da salto orain, bertan bizi ditugun emozioei irtenbidea emateko asmoz. *Zelan sentitzen naiz?* izeneko jarduera honetan, beraz, emozioak adierazten saiatuko gara. Musika labur bat (minutu batekoa gutxi gora behera) jarriko da eta umeei arretaz entzuteko eskatuko zaie, entzutean sentitutakoa edo musikak transmititutako emozio hori gorputza (eta honekin batera ahotsa) erabiliz soinuen bidez adierazteko esanez. Haurrek askatasuna izango dute noiz adierazi erabakitzeke; hau da, musika entzun ahala edota musika amaitu ostean egiteko. Gauza bera egingo dugu musika ezberdinekin emozio desberdinak biziarazi eta horiek adierazteko aukera emateko. Jarduera honen bitartez, beraz, adierazpena bultzatzea da helburu nagusia.

Emozioak islatuta agertzen diren beste baliabideetako bat ipuina da, eta hain zuzen hori izango da guk proposatutako azken jarduerarako oinarria. Haur Hezkuntzan mordoa erabiltzen den errekurso didaktikoa da ipuina, eta gorputza musika-tresna bilakatzeko proiektu honetarako ere oso baliagarria izango zaigu. *Ipuinei soinua emanaz* izeneko jarduera hau klasean landu daitekeen edozein ipuini soinua gehitzean datza. Irakasleak ipuina irakurri ahala haurrek gertatzen doazen ekintzak adierazteko soinuak, horiei loturiko berezkoak direnak, haiek sentitzen dutenaren araberakoak, inguruneko soinuak imitatuz, onomatopeiak erabiliz, bai ahotsaren bidez, zein gorputz perkusioa edota bestelako tresnaren bat erabilita, egingo dituzte, horrela ipuina musikala bilakatzuz.

Ipuinari soinuak gehituzerakoan irudimena lantzeaz gain, entzunezko memoria eta gogoeta landuko da. Izan ere, Judith Akoschky-k *Los <<cotidifonos>> en la educación infantil* artikuluan esaten duen bezala soinuek aurretik bizitako esperientzietara garamate askotan; kasu honetan guk soinuak imitatuz, gogoratutako soinuen errepresentazioa egingo dugu.

Jarduera guzti hauek gelan burutuko direnez, baliabide pertsonalak gelako haurrak eta beraien irakaslea izango dira kasu guztietan. Azpimarratzekoa da irakaslea gidaria izango dela, laguntzailea, eta ez duela inondik inora gelaren nagusitasuna beregain hartuko; aitzitik, protagonistak haurrak izango dira kasu guztietan, haiek baitira ikasketa prozesuaren erdigunea.

Bestetik, materialei dagokienez, musika erreproduktorea eta musika lanak, gorputz atalen irudiak dituzten txarteltxoak eta hauek gordetzeko kutxa, perkusio txikiko

musika-tresnak, ipuin desberdinak eta gelako bestelako materiala (mahaiak, hormak, ateak, lurra, ahulkiak...) erabiliko dira jarduerak eskatzen duenaren arabera.

Jarduera hauen bidez hainbat gaitasun garatu nahi dira; batetik, gorputza musika-tresna gisa ulertu eta erabiltzea bultzatu nahi da, horrekin batera gorputz atalak ezagutu eta bakoitzarekin egin daitezkeen soinuak aurkitzea, bai eta entzumenaren bidez soinu horiek identifikatu eta harremanatzen jakitea ere; sormena, entzumena eta adierazpena apurka-apurka garatuz soinuekin esperimentatzea eta beraiekiko sentsibilizazioa izatea da helburua. Bestetik, askotariko jarduerari esker bakarka zein taldeka lan egiten ikastea, batzutan gidaria izanik, besteetan gidatua, rol ezberdinak onartu eta kideak errespetatzea da lortu nahi den beste helburu nagusietako bat.

Ebaluazioa orokorra eta jarraia izango da. Behaketa zuzena eta sistematikoa izango da ebaluazio- prozesuko teknika nagusia. Haurrei ez zaie inolako azterketa edo frogarik egingo, jarduerak burutu ahala hauek zelan irtetzen diren, haurrak zelan moldatzen diren, haien interesa eta parte hartze maila nolakoa den, bai eta landutako edukien lorpen maila behatuko baita, besteak beste, nondik norakoak ohar- orri batean apuntatuz. Irakaskuntza- prozesua, irakaslea beraren hezkuntza-jardutea eta hurrek maila horretako helburuekin eta ezagutzarekin bat datozen gaitasunak eskuratu dituzten ebaluatuko da.

3. Emaitzak eta ondorioak

3.1. Bizipenaren ebaluazioa

Sortutako proiektu hau Arrigorriagako *Arrigorriaga C.P.* izeneko eskolan abian jartzeko aukera izan dugu bertako lau urteko gela batean. Berrogeita bost minutuko tarte izan genuen proposatutako jarduerak hurrekin burutu eta saioaren ebaluazioa egiteko, eta bertatik ateratako ondorioak honakoak dira:

Proiektuaren azalpenean agertzen den bezala, askotariko jarduera guzti horien bidez, gorputza musika-tresna bilakatu nahi izan dugu, soinuen esperimentazioa eta sormena bultzatzeko, besteak beste. Eskolan haurrei jarduerak proposatzerakoan emaitza eta erantzun ezberdinak jaso ditugu; askotan pentsatu ohi izan denaren kontrara, lau urteko haurrak badira haien kabuz gauza asko sortzeko gai, eta soinuen mundu honetan ere badute zeresana. Umeek bizitako esperientzietatik, entzundako gauzetatik erreferentziak

hartu eta soinu andana imitatu eta erreproduzitzeko gai izan ziren, ipuin musikala sortzean, esaterako; bai eta soinuak entzun eta hauei erantzun bat emateko, adierazteko ere (zuzendariari jarraitu edota zelan sentitzen naiz jardueretan, adibidez). Horrez gain, inprobisazioa eta sormena landu egin zuten, eta honetan ere esperotako emaitzak jaso genituen, umeek soinu ezberdin asko aurkitu baitzituzten.

Orokorrean, beraz, esan dezakegu haurren parte hartzea bikaina eta erakutsitako interesa handia izan zirela; horrekin batera, emaitzak positiboak izan zirela, izan ere, nire jarrera egokia eta jarduerak esanguratsuak direla ikusi ahal izan genuen haurren ulermen eta erantzunari esker; umeak oso pozik egon ziren eta ni ere oso gustura. Hala ere, jarduera batzuk planteatzerakoan umeak lekuz kanpo bezala antzeman zitezkeen, kasuren batean proposatutakoa ez zegoelako haien adinari behar bezala egokituta; beste batzuetan, aurretik libreki esperimentatzeko izandako aukera edo tarte eskasaren adierazgarri.

Azken hau, egindako lanari dagokion kasuetan, moldatzeko baliagarria izan zaigu, eta ustez behintzat, haurrei behar bezala egokitzeke, hurrengo batean behar duten neurria egon daitezke. Bestetik, eskoletan umei eskaintzen zaien autonomiari dagokionez, antza ez da handia izaten; irakasleak gidariarena beharrean zuzendari papera hartu ohi du askotan; ondorioz, haurrek ez dute erabakitzeke aukera handirik izaten eta horrek jardueren aurrean izandako jarreran eragina izan du. Alabaina, batzuetan ohitura falta oztopo bat izan daitekeen arren, ez dugu muga gisa ulertu behar, erronkatzat baizik. Posamen honek, bederen, horretan du oinarria eta hori da hezkuntzari egiten dizkion ekarpenetako bat, haurrei protagonismoa eskaini eta egiten, sortzen uztea, alegia.

3.2. Ekarpenak

Aurretik aipatutako haurrei esperimentatzen eta modu autonomoagoan jarduten uzteko ahaleginaz aparte, eskoletan eta orokorrean gizartean gorputzari ematen zaion esanahi eta erabileratik urrundu, edo behintzat beste bat gehitzen saiatu garelako da berritzailea proiektu hau.

Gorputza ikasten dugunean kanpotik ikus daitezkeen atalak ikasten ditugu lehenik, eta barrutik ditugun organo eta aparatuak beranduxeago. Bere funtzionalitatea aztertuta zertarako erabili dezakegun umeren bati galdetuz gero, ibiltzeko, korrika egiteko...esango digu; gutxiren batek, edo agian batek ere ez, esango du soinuak egiteko balio duenik. Alabaina, gorputza gure lehenengo musika-tresna da, eta soinuekin sensibilizatzeko aukera paregabea eskaintzen digu. Proposamen honek soinu guzti

horiek bilatzeko eta nork bere kabuz aurki ditzan tartea ematen du, bai eta taldekideekin konpartitu eta soinu ezberdinek sentiarazten digutena adierazi eta partekatzeke ere.

3.3. Proiektzioa

Proposamen hau gaur egun oraindik eskoletan dauden aipatutako hutsuneei erantzuna emateko baliagarria izan daitezkeela uste dugu, bai haurren autonomia, beraien kabuz gauzak deskubritzeko gaitasuna bultzatzeko, sormenari ateak irekitzeko tresna gisa, eta baita gorputzaren alderdi berri hau, edo musika klasetik kanpo behintzat lantzen ez dena, ezagutzen laguntzeko ere. Hori dela eta, etorkizunean eskola eta haurren heziketaz arduratzen diren tokietan aplikagarria izango dela iruditzen zaigu.

Tarte txikian izan bada ere, proposamen hau eskola batean frogatuta dago jadanik eta, beraz, gauzagarria dela bermatuta dago. Hala ere, hiru ordu laurdeneko saio bat, ustez, ez litzateke nahikoa izango, berez jarduerak burutu daitezkeen arren, gaitasunak eskuratu eta umeengan garapena antzeman ahal izateko behin baino gehiagotan gauzatzea egokia izango bailitzateke. Modu horretan haurrek praktika eta ohitura faltagatik duten hasierako segurtasun falta hori galduko luketela pentsatzen dugu, eta elkarrengandik ikasitakoa praktikan jarri ahalko luketela.

Bestetik, eta jardueren segidari dagokionez esatea, ez direla zertan egunero guztiak egin, eta era berean, landu nahi denaren arabera moldaketak egin daitezkeela.


Honetaz gain, proiektu honen aplikagarritasuna eta ekarri ditzakeen abantailak ikusita, lanaren tutore edota zuzendaria izan denarekin artikulatu bat idazteko aukera ez dugu baztertzen, baliagarria izango zaienen, bai eta gaiarekiko interesa izan dezaketenen artean ere, ezagutzera eman eta zabaltzeko asmoz.

4. Erreferentzia bibliografikoak

- Akoschky, J. (1988). *Cotidiáfonos. Instrumentos sonoros realizados con materiales cotidianos*. Buenos Aires: Ricordi.
- Akoschky, J. (2005). Los “cotidiáfonos” en la educación infantil. *Eufonía. Didáctica de la música*, 33, 20-30.
- Decreto 12/2009, de 20 de enero, por el que se establece el currículo de la Educación Infantil y se implantan estas enseñanzas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Delalande, F. (1995). *La música es un juego de niños*. Buenos Aires: Ricordi.
- Kaner, E. (2006). *Ciencia sonora. Juegos y experimentos con el sonido*. Barcelona: Oniro.
- Paynter, J. (1972). *Oír, aquí y ahora*. Buenos Aires: Ricordi.
- Paynter, J. (1999). *Sonido y estructura*. Madrid: Akal.
- Schafer, R. M. (1965). *El compositor en el aula*. Buenos Aires: Ricordi.
- Schafer, R. M. (1967). *Limpieza de oídos*. Buenos Aires: Ricordi.
- Schafer, R. M. (1969). *El nuevo paisaje sonoro*. Buenos Aires: Ricordi.
- Schafer, R. M. (1970). *Cuando las palabras cantan*. Buenos Aires: Ricordi.
- Schafer, R. M. (1975). *El rinoceronte en el aula*. Buenos Aires: Ricordi.
- Schafer, R. M. (1994). *Hacia una educación sonora*. Buenos Aires: Pedagogías musicales

ERANSKINAK

1. Eranskina. *Soinuak entzun eta desberdintzen* asmakizun jolaserako txartelak



Rommy Meyer










2. Ebaluazioa

2.1. Ikasleek egindako ebaluazioa

A. Nola pasatu dut klasean?



B. Gorputza musika-tresna moduan erabili ahal dugu soinua egiteko?



2.2. Irakasleak egindako ebaluazioa

A. Jolasa: Aurkezpena

Ulermena	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona
Jarrera	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona

B. Jolasa: Zenbat soinu egin ditzaket? (Sormena)

Ulermena	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona
Jarrera	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona

C. Jolasa: Soinuak entzun eta desberdintzen (Entzumena)

Ulermena	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona
Jarrera	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona

D. Jolasa: Ispiluaren jolasa (Musika grabatua)

Ulermena	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona
Jarrera	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona

E. Jolasa: Zuzendariari jarraitu (Perkusio txikia)

Ulermena	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona
Jarrera	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona

F. Jolasa: Paparabapapiripon (Abestia zuzenean)

Ulermena	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona
Jarrera	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona

G. Jolasa: Zelan sentitzen naiz? (Adierazpena)

Ulermena	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona
Jarrera	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona

H. Jolasa: Ipuinei soinua emanaz (Ipuin musikala)

Ulermena	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona
Jarrera	Oso txarra	Txarra	Erdizka	Ona	Oso ona